**AEB-KUBA.** Colin Powell Estatu idazkariak berretsi du Kubak ahalak dituela arma mota hauen egitea bultzatzeko

# Carterren ustez, Kubak ez du arma biologikoentzako ikerketarik garatu

## AEBetako agintari ohiak bisitatu du zientzietarako ikerketa gunea, Fidel Castrorekin batera



ADALBERTO ROQUE / AFP

Castro, medikuntza eskola batean mintzatzen, astelehenean. Ezkerrean, Carter senar-emazteak, entzuten.

Erredakzioa | DONOSTIA

Kuban astelehenaz geroztik bisitaz dabilen Jimmy Carter Ameriketako Estatu Batuetako presidente ohiak adierazi zuen atzo, bere ustez, Fidel Castroren gobernuak ez duela ikerketarik garatu arma biologikoak egiteko. Estatubatuar agintari goren ohiak iritzi zion, halaber, Kubak ez duela arma mota hauen fabrikazioa ahalbidetzeko teknologiarik zabaldu AEBek terrorismoaren bultzatzailetzat ematen dituen herri zenbaiten alderat.

Carterrek adierazpen hauek egin zituen Habanan kokatuta dagoen zientzietarako ikerketa gunean ikustaldi bat egin eta han jardun zutenen azalpenak entzun ondoren. Bisitaldi hori egin zuen Fidel Castro Kubako presidentearekin batera. Luis Herrera ikerketa guneko zuzendariak Carterri azaldu zion osasun eta nekazaritza arloetan ikerkuntza lanak daramatzatela, mundu zabaleko 38 estaturekin elkarlanean.

Argibide hauek jaso ondoren, Carterrek esan zuen «etsita» zegoela, Kubak ez duela inolako ikerketa lankidetzarik bultzatzen Libia edo Irakekin. Iranekin sinatutako hitzarmena, berriz, ez dela oraindik obratze fase batean sartua ohartarazita, AEBetako presidente ohiak gaineratu zuen: «Nolanahi ere, akordioa garatzeko unea etortzen delarik, pentsatzen dut Kuba oso zuhur ibiliko dela jakintzen desbideratzerik ez dadin egon».

Erabat sineskaitza agertu zen, berriz, Colin Powell AEBetako Estatu idazkaria. Hark Reykjavik hiritik (Islandia) berretsi zuenez atzo, «Kubak ahalak dauzka arma biologikoen fabrikazioaren ikerketak garatzeko».

DISIDENTEAK

### Bilera Habanan

Fidel Castrorekin batera Habanako zientzietarako ikergunea bisitatu aurretik, Jimmy Carter bildu zen Kubako erregimen komunistari aurka egiten diotenen bi buruzagirekin. Hala, Etxe Zuriko egoiliar ohiak hitz egin zuen Osvaldo Paya MCL Askapanerako Mugimendu Kristaueko presidentearekin, eta hark argibideak eman zizkion Varela ekimenaz. Honen bultzatzaileek 11.200 kubatarren izenpetzak jaso dituzte aldaketa demokratikoak eskatzen dituen erreferedum bat antolatua izan dadin. Eskaera hau, joan den ostiralean eraman zuten Kubako Parlamentura. Izan ere, Kubako Konstituzioaren arabera, erreferendum bat egin daiteke, gutxienez, 10.000 herritarrek eskatzen badute.

Estatubatuar presidente ohiak berba egin zuen giza eskubideen eta nazioa berriro adiskidetzearen aldeko batzordeko presidente Elizardo Sanchezekin. Ordu bat iraun zuen solasalditik irtetean, Sanchezek adierazi zuen «Carteren borondate onarekin hunkituta» egon zela, eta gaineratu: «Espero dugu Washingtonek eta Habanak aukera hau (Carterren bisita, alegia) aprobetxatuko dutela euren arteko harremanetan erabateko aldaketa bat bultzatzeko».

**KAXMIR.** Indiaren menpeko Jamu-e-Kaxmirren izan da erasoa, Washingtongo diplomazia ordezkaria New Delhin bisitan zelarik

# Gutxienez 33 lagun hil dira, ustezko ekintzaile islamistek autobus bati eta kuartel bati erasota

Agentziak | NEW DELHI

Erakunde armatu islamiko bateko ekintzaileek ustez eginiko erasoaldi batean, gutxienez 33 lagun —hauetatik gehienak soldadu indiarrak— hil ziren atzo Jamu-e-Kaxmir herrialdean. Eraso egileak autobus bati eta Indiako Armadako kuartel bati oldartu zitzaien. Erasoak gertatu ziren Ameriketako Estatu Batuetako Estatu idazkariorde Christina Rocca New Delhin aurkitzen zelarik bisita ofizialean. Jamu-e-Kaxmir da Indiaren menpe dagoen Kaxmirreko zatia, eta musulman erlijioko herritarrak dira gehiengoa han.

Indiako Armadako Oberoi lotinante-koronelak emandako argibideen arabera, soldadu indiar uniformea zeramaten hiru eraso egilek autobus zibil bat tirokatu zuten goiz partean, eta 7 lagunen heriotza eragin —tartean lau emakumerena—. Ondoren, ustezko ekintzaile islamistak Kaluchkak hirian kokatutako Indiako Armadako kuartel bati oldartu zitzaizkion, eta aldi hartan, 23 soldaduk edota euren senitartekoek galdu zuten bizia. Eraso horretan hil ziren hiru ekintzaileak ere. Erasook Al-Mansoorain izeneko talde batek bere gain hartu zituen arren, Indiako Armadako agintariek Jaish-e-Mohamed erakundearen bizkar ezarri zuten.



GM. MAHAJAN / AP

Indiako soldadu bat, ustezko militante islamisten gorpuen ondoan, Kaluchak herrian.

AEBetako gobernuan Asia hegoaldeaz ardura duen Christina Roccaren bisita aurrera zihoan bitartean jazo ziren gertakari hauek. Haren bidaiaren helburua da Indiaren eta Pakistanen arteko gatazka giroa baretzea. Izan ere, New Delhin behin eta berriro leporatu dio Islamabadi Jamu-e-Kaxmirren ekiten dute erakunde islamikoen laguntzailea izatea.

Roccak «basatitzat» jo eta gogor gaitzetsi zituen atzoko bi erasoak.